


KLASIKOAK
ESKURA



Oliver Twist

Charles Dickens

ANAYA
HARITZA

KLASIKOAK
ESKURA

Oliver Twist

Charles Dickens

Egokitzea: Lourdes Íñiguez Barrena
Irudiak: Mónica Armiño Yela

ANAYA
HARITZA

Jatorrizko izenburua: *Oliver Twist*

Oliver Twist eleberraren egokitze-lan
hau ikasgelan erabiltzeko, irakaskuntzarako iradokizunak
eta ariketak dituen materiala irakasleen esku dago, Grupo Anaya
www.anayainfantilyjuvenil.com
webgunean.

e-mail: anayainfantilyjuvenil@anaya.es

© Egokitze-lan, sarrera, eranskin eta oharrena:
Lourdes Íñiguez Barrena, 2012
© Irudiena: Mónica Armiño, 2012
© Itzulpena: Rosa María Gómez, 2013
© Edizio honena: Grupo Anaya, S. A., 2013
Juan Ignacio Luca de Tena, 15. 28027 Madrid

Egokitze-lanaren koordinazioa: Emilio Fontanilla Debesa
Discinua: Javier Serrano eta Miguel Ángel Pacheco

1. argitaraldia, 2013ko matxoa

ISBN: 978-84-678-4135-0
Lege-gordailua: M-2948-2013

Espanian inprimatua - Printed in Spain

*Eskubide guztiak gordeta. Legeak lan honen edukia babestu eta espetxe-zigorrak
edota isunak eta kalte-galeren ondoriozko kalte-ordainak ezartzen ditu honako hauentzat:
edozein literatura-lan, artelan zein zientzia-lan, edo horren eraldaketa, interpretazioa
edo gauzapena (edozein euskarritan finkatuta edo edozein eratan komunikatuta),
oso-osorik edo zati batean, baimenik gabe erreproduzitu, plagiatu,
banatu edo komunikatzen dutenentzat.*



Oliver Twist

Hitzaurrea



Beti uste izan dut gaizkirik zikinenak ezin digula ongirik garbienari buruz ezer irakatsi, eta egia auzorik apalenetako pertsonak zein aberatsek izan dezaketela. Bizitzako miserie-tatik ikasbideak ateratzeko asmotan, gaitz guztien gainetik igaro eta, azkenean, garaile ateratzen den Ongia erakustea bururatu zitzaidan, eta Oliver txikia erabili nuen horretarako. Gaizkileak benetan diren bezala aurkeztuz, haien gainbehera eta doilorkeria deskribatuz, gizarteari zerbitzua ematen niola uste izan nuen; izan ere, haien bizitzetako zorigaiztoko bide ilunetan, ez dago gazteak erakarriko dituen ezer, alderantziz baizik.

Era horretako pertsonaiak erakusten dituzten liburu guztie-tan, nolabaiteko xarma eta erakargarritasuna ematen zaizkie, eta, ondorioz, heldutasunik gabeko irakurleen eredu bihur dai-tezke, gizon prestuak balira bezala. Ez da aurkituko hemen gau argietako zaldi gaineko ibilaldirik, ez tabernetako berotasuna-

ren inguruko gai alairik, ez kasaka brodaturik, ez dotoretasunik, ez askatasunik..., Londresko gauerdiko kale hotz eta hezeak baizik, bizioak pilatzen diren zulo zikinak, gosearen eta gaixotasunaren gordelekuak. Non dago gauza horien erakargarritasuna? Ez al dira oharpena eta moral-ikasbidea? Iritzi horretakoa nintzen, eta horregatik erabaki nuen beharrezkoa zela Oliverren bizitzako pasadizoak kontatzea.

CHARLES DICKENS

Oliver Twisten jaiotza eta haurtzaroa



Hiririk gehienek, handiak zein txikiak izan, umezurtzen etxeak dituzte, herri-eraikinen artean; izena emango ez dudan hiri bateko halako etxe batean etorri zen Oliver Twist nekez eta arduraz beteriko mundu honetara. Ez zen jaio esperientzia handiko sendagilez eta amona samurrez inguratuta. Garagardoz erdi mozkortuta zegoen erizain zaharra baino ez zuen ondoan izan, eta zeregin horretarako hitzartuta zegoen udalerriko zirujaua. Amak, aurpegi zurbileko emakume gazteak, honako hitz hauek baino ezin izan zituen esan:

—Utzidazue haurra ikusten, hil baino lehen.

Zirujauak emakumearen besoetan ipini zuen haurra, eta amak musu eman zion; gero, dardara egin, atzerantz erori eta hil egin zen.

—Bukatu da dena, Thingummy andrea —esan zuen zirujauak—. Emakume polita zen. Nongoa zen bera?

—Gaixoa! Atzo gauean ekarri zuten —erantzun zuen atsoak—, gainbegiralearen aginduz. Kanean botata aurkitu zuten;

oinetakoak haustuta zituen, hainbeste ibili ondoren, baina inork ere ez daki nondik zetorren edo nora zihoan.

—Betiko kontua —esan zuen sendagileak, gorpuaren ezkerreko eskua jasoz—. Ez du ezkontzako eraztunik. Jakina... Tira, gabon, andrea.

Erizain zaharra, botilatik zurrutada ederra egin ondoren, sutondora hurbildu eta jaioberria janzten hasi zen. Negar eta negar ari zen Oliver, eta, udalerraren karitatearen esku utzitako umezurtza zela jakin izan balu, gogorrago egingo zuen negar.

Han egin zituen zortzi edo hamar hilabete, era guztietako gabeziak jasanez, etxeko agintariek ez zuten bularra emango zion emakumerik aurkitu eta. Gero, umezurtzen etxearen mendeko landetxe batera bidali zuten. Hiru milia inguruko distantzian zegoen landetxe hura. Bertan, Mann andreak Txiroen Legea¹ hautsi zuten hogeit hamar haurren ardura zuen; negar eta negar eta lurrean arrastatu, besterik ez zuten egiten haurrok.

Emakume horrek zazpi penny eta erdi jasotzen zituen astein, haur bakoitzaren mantenurako; kantitate hori nahikoa zen horretarako. Baina emakume adimentsu hura esperientzia handikoa zen, eta bazekien haurrei eta berari zer komeni zitzaien; beraz, haurrak gaizki ez ohitzeko, zaldia jan gabe egoten ohitu nahi izan zuen antzinako filosofoaren teoria jartzen zuen praktikan: beretzat hartzen zuen haurren mantenurako diruaren zatirik handiena, eta jatekorik gutxien ematen zien haur koitadu haiei. Hamar haurretik, zortzi gosez eta hotzez gaixotzen ziren, edo etxe barruko ezbeharrak izaten zituzten; oharkabea, sutara erortzea, esate baterako. Horrela, zori-

¹ *Txiroen Legea*: Erresuma Batuan 1834an indarrean sartutako lege horren arabera, 15 urtetik beherako umezurtzek umezurtz-etxeetan edo lan egiteko etxeetan egon behar zuten. *Workhouse* esaten zaie ingelesez azken era horretako etxeei.

gaiztoko haurra mundu honetatik beste mundura abiatzen zen, hemen ezagutu ez zituen gurasoak ezagutzera. Noizean behin, batez ere istripuren bat gertatzen zenean, arduradunek norbait bidaltzen zuten landetxearen funtzionamendua ikuskatzera; baina umezurtzen etxeko zaintzailea bidaltzen zuten beti bezperan, haurren ardura zuen emakumea ohartarazteko. Horrela, bisitaren egunean, haurrak garbi-garbi egoten ziren. Besterik ezin zezakeen eskatu!

Bederatzi urte egin zituenean, Oliver argal eta zurbil zegoen, eta txiki samar bere adinerako; baina naturak edo gurasoen odolak bihotz prestua eta izaera sendoa eman zizkioten. Urtebetetze-eguna beste bi lagunekin ikaztegian ospatzen ari zela, Bumble zaintzailea lorategian agertu zen, eta ostiko bat eman zion ateari, giltzarrapoa apurtzeko.



—Ene Jainkoa! Zeu al zara, Bumble jauna? —esan zuen Mann andreak, burua atera eta irribarre faltsua eginez—. Poza-
rren nago zu ikusteaz! Atea barrutik itxita nuen, badaezpada
ere; haurrokin, batek daki!

—Errespetuzko al deritzozu, andrea, funtzionarioak atean
zain edukitzeari, *porrokiako*² umezurtzei dagozkien arazoak
konpontzera datozenen? —esan zuen, makila astinduz. Eta,
umiltasun-itxurak egiten ari zen Mann andrearen aurrean
harrotuta, honela jarraitu zuen—: Tira, andrea!, eraman nazazu
barrura, zerbait esan behar dizut eta.

Egongela txiki batera joan ziren, eta zaintzaileak mahai gai-
nean jarri zituen hiru puntako kapela eta makila. Gero, kope-
tako izerdia kendu eta eseri egin zen.

—Orain, Bumble jauna —esan zion Mann andreak, gozo-
gozo—, halako ibilaldi luzea egin ondoren, hartuko duzu
tantatxo bat, ezta?

—Ezta bat bera ere! —erantzun zuen Bumble jaunak, ziur-
tasun handirik gabe; baina ezin izan zion eutsi Mann andrea-
ren ekinari, eta etsi egin zuen, azkenean—. Tira, bat bakarrik.
Zer da?

—Hurrei ondoezik daudenean ematen diedana, Bumble
jauna, gina.

—Gina ematen al diezu hurrei, Mann andrea?

—Nola ez; haur gaixoak! Ezin ditut neure begien aurrean
sufritzen ikusi.

—Ez horixe! Bihozbera hutsa zara, Mann andrea! Ama
baten modukoa! Laster izango dut hori kontseiluan aipatzeko

² *Porrokia*: *parrokia* hitzaren metatesia edo aldaketa, hizkuntza-maila eskasa zutenen ohiko akatsa; pertsonaia horren ezaugarria da. Aldi hartan, *parrokia* hitza *udalerr*i edo *herri* hitzen sinonimotzat hartzen zen, Estatuaren eta Elizaren arteko bereizketa-rik ez zegoen eta.



aukera —esan eta edalontzi-erdia edan zuen, zurrutada batez—. Zeure osasunean, Mann andrea! Eta, orain, ekin diezaiogun geureari —esan zuen zaintzaileak, larruzko zorroa irekitzen zuen artean—. Bataioan Oliver Twist izena hartu zuen mutikoak bederatzi urte egin ditu gaur. *Porrokia* gogor saiatu da haren gurasoak nor diren jakiten, baina alferrik, eta hori saria ere eskaini dugula.

—Nola du izen hori, orduan? —galdetu zuen Mann andreak, harrিতuta.

Zaintzaileak harro-harro erantzun zion:

—Neuk asmatu nuen. Ordena alfabetikoari jarraituz ematen diet izena gizagaixo horiei; azkenak «S» letra zuenez, «T» letra zegokion gure mutikoari: Twist. Hurrengoari, «U» letra

egokituko zaio, eta «V» letra, berriz, horren atzetik datorrenari. «Z» letrara arteko izen guztiak ditut, eta, gero, berriro hasiko naiz.

—Gizon argia zara gero! —esan zuen Mann andreak.

Bumble jaunak gina bukatu eta honako hau erantsi zuen, atsegin handiz:

—Oliver hemen egoteko handiegia denez, zuzendaritzak umezurtzen etxera itzultzeko agindu du, eta mutikoaren bila etorri naiz.

—Berehala ekarriko dizut —esan zuen Mann andreak, eta haren bila bidali zuen laguntzaile bat. Laster ekarri zuen, eskuak eta aurpegia estaltzen zizkion ugerra kenduta.

—Makurtu burua jaunaren aurrean, Oliver —agindu zion Mann andreak.

—Nahi al duzu nirekin etorri? —galdetu zion Bumble jaunak.

Edonorekin ere berehala joateko prest zegoela esatekotan zegoen unean, emakumearen ukabila eta haserre-aurpegia ikusi zituen, zaintzailearen jarlekuaren atzean. Argi ulertu zuen seinalea, esku haren keinua ondo ezagutzen zuen eta.

—Nirekin etorriko al da bera? —galdetu zuen, azkenean.

—Ez, ezin du —erantzun zuen zaintzaileak—. Baina zu ikustera etorriko da, noizean behin.

Mutikoa negarrez eta nahigabe-plantak eginez aldendu zen Mann andrearengandik, eta komeriek saria izan zuten: gurinez igurtzitako ogi zati bat eta mila besarkada jaso zituen. Horrelaxe eraman zuen Bumble jaunak zorigaiztoko etxe hartatik, haurtzaro osoan hitz atseginik edo begirada errukiorrik eskaini ez zion etxetik.



Oliver Twist eleberria edozein liburutegitan aurkituko duzu. Adin eta toki guztietako irakurleentzat idatzita dago; izan ere, eleberriaren gaiak txiki uzten ditu denborak eta espazioak ezarritako muga guztiak. Hain zuzen ere, bizitzeko eta gizartean tokia aurkitzeko borroka ageri zaigu eleberrian; edo, beste modu batera esateko, ahulak indartsuaren aurka duen borroka, ongiaren eta gaizkiaren artekoa. Hori dela eta, eleberri hau ez da ez atzokoa, ez gaurkoa; betikoa da.

